

Gure Eskola Txikia

Olaberriko eskolan, Eskola Txikian,
egunero dugu gozamina.
Txikia eta bizia da gure eskola,
gure txoko maiteena.
Gu guztiok elkarrekin elkarreraginean
bizipen berriak bizitzera.
Eginaz ikastea da biderik onena,
biderik biziena.

Gure eskola txikia, gure txoko bizia.
Gure eskola txikia, mundu handia.
Gure eskola txikia, gure txoko handia.
Gure eskola txikia, mundu bizia.

Olaberriko eskola, aspaldi sortua;
zorionez bizi-bizi darrai,
gure eskola txikiak paisai handiak
mendi-zelaiak nonahi;
A zer zortea daukagun olaberritarrok
ingurune guztia bizigai.
Goierriko balkoia da gure Olaberri
ez al duzu etorri nahi?

Gure eskola txikia, gure txoko bizia.
Gure eskola txikia, mundu handia.
Gure eskola txikia, gure txoko handia.
Gure eskola txikia, mundu bizia.

Olaberriko etorkizuna
da aspalditik hasia
eta Eskola Txikiak badu
oraindik zertan hazia
aiton-amonai iritsi zaigu
gozatutzeko grazia
zuhaitz gaztetan ikusirikan
erein genduen hazia.

Gure eskola txikia, gure txoko bizia.
Gure eskola txikia, mundu handia.
Gure eskola txikia, gure txoko handia.
Gure eskola txikia, mundu bizia.

Musika eta hitzak: Aitor Furundarena
Azken bertsoa hitzak: Agustin Agirre